

EUSKARAREN LORATEGIAN:

haziak erein,
loreak
haz!

e
u
s
k
a
r
a



Dans le jardin de l'euskara :
semons les graines, cultivons les fleurs !

IKASTOLA
EUSKARAREN
LORATEGIA

IKASTOLA
JARDIN
DE L'EUSKARA



Ikastola euskararen lorategia

Haur batek hizkuntza bat bereganatzea eta menperatzea, hizkuntza horrekin egunero ehuntzen dituen harremanek baldintzatzen dute, eskola eremuan ala eskolatik kanpoko jardueretan, familian eta, orokorrago, ingurumen osoak eskaintzen dizkion elkarrekintza motetan –erabiltzen dituen tresnak barne. Hizkuntza bat agertzen ez den gizarte kontestu batean (atzerriko hizkuntza) edo beste zenbait hizkuntzarekin batera baina modu ahulagoz erabilia denean, murgiltze irakaskuntzak egiazko elebitasuna edo eleaniztasunaren baldintzak eraikitzen entseatzeko da, haurrak bere ingurumenean gutiago entzuten duen hizkuntzarekilako harreman ohikoagoa bilatuz.

Ikastola babesleku eta toki aparta da hortaz, zointan euskara, ardura eta naturaltasun osoz, entzun eta erabili ahal izan behar baitute gure haurrek –frantsesaren ikaskuntzarekin batera. Euskara ez da soilik irakaskuntza hizkuntza bat izan behar baina eguneroko biziko hizkuntza, jangelan, aisialdi eremuan, jokoetan...

“Euskararen lorategi” hau zaintzea eta haztea ez da haurren, irakasleen eta ikastolako langileen ardura soilik. Guraso gisa ingurumen horren zaintzen lagun dezakegu ere, euskaldunak izan ala ez izan. Zenbait oinarrizko arauri jarraitzea aski litzaiguke helburu hartarainoko bidea errazteko. Horra hemen hiru adibide jarrai ditzakegunak ikastolaren eremuan:

- 1) eguneroko biziko euskarazko hitzak erabil ditzaugun gutienik: *egun on, arratsalde on, bihar arte, ikus arte, otoi, barkatu, milesker...*;
- 2) frantsesezko solasaldiak denen bistan ez egitea ahalaz entsea gaitzen:
 - bereziki beste guraso batekin luzaz mintzatu beharrean (ikastolaren sartzean mintza gaitzke...)
 - irakasle edo langile batekin solastatu behar girelarik;
- 3) euskara guti edo aski dakigularik, erabil dezagun!

Arau soil horiek betez, helduek ere euskara eguneroko hizkuntza (eta ez bakarrik irakaskuntza hizkuntza) izan dadin nahi dugula erakutsiko diegu gure haurrei.

Euskararen lorategia denek batera erai eta zain dezagun!

Itsas Argi ikastolako Euskaraz Bizi eta Lotu lan taldeak

IKASTOLA EUSKARAREN LORATEGIA :

zaindu
gure
lorategia



L'ikastola jardin de l'euskara :
prenons soin de notre jardin !



IKASTOLA
EUSKARAREN
LORATEGIA

IKASTOLA
JARDIN
DE L'EUSKARA

IKASTOLA EUSKARAREN LORATEGIA :



L'ikastola jardin de l'euskara :
nous aussi, parents, soignons ce jardin !

Ikastola euskararen lorategia / L'ikastola jardin de l'euskara

L'acquisition d'une langue par un enfant est conditionnée par son « exposition » à cette langue au quotidien, dans l'univers scolaire aussi bien que dans ses activités extra- scolaires, sa famille et, plus généralement, dans les interactions que lui offre son environnement global – les media qu'il utilise inclus. Dans un contexte social où une langue est absente (langue étrangère) ou employée parallèlement à d'autres langues et de manière moins soutenue, l'enseignement immersif cherche à instaurer les conditions d'un véritable bilinguisme ou multilinguisme, en prenant soin de confronter régulièrement l'enfant à la langue moins présente dans son environnement.

L'ikastola est ainsi un lieu privilégié, un havre où nos enfants doivent pouvoir entendre et pratiquer l'euskara de façon courante et naturelle – en parallèle de leur apprentissage du français. L'euskara ne doit pas seulement y être une langue d'enseignement mais une langue de la vie quotidienne, à la cantine, dans la cour de récréation, dans les jeux...


Préserver et faire croître ce « **jardin de l'euskara** » ne relève pas de la seule responsabilité des enfants, enseignants, ATSEM... Nous pouvons aussi, en tant que parents, contribuer à préserver cet environnement, que nous soyons ou non bascophones. Il nous suffit pour cela de respecter quelques règles. Voici trois exemples que nous pourrions mettre en œuvre dans le périmètre de l'ikastola :

- 1) utilisons a minima quelques mots d'euskara de la vie quotidienne :
egun on 'bonjour', *arratsalde on* 'bon après-midi',
bihar arte 'à demain', *ikus arte* 'à bientôt',
otoi 's'il vous / te plaît', *barkatu* 'pardon', *milesker* 'merci' ...;
- 2) soyons, autant que possible, discrets lors de nos échanges en français :
 - en particulier pour une longue conversation avec un autre parent (discutons à l'entrée de l'ikastola...)
 - pour une discussion avec un enseignant ou un membre du personnel ;
- 3) lorsque nous maîtrisons un minimum l'euskara, utilisons-le !

En appliquant ces règles simples, nous montrerons à nos enfants que, nous aussi, adultes, tenons à l'euskara comme langue de vie (et pas seulement comme langue d'enseignement).

Construisons et préservons ensemble le jardin de l'euskara !

Commissions Euskaraz Bizi et Lotu de l'ikastola Itsas Argi



ery soilik geletan :
jalgi hadi
lorategira !



L'euskara pas seulement dans les classes :
euskara sors dans le jardin !